4. Elizbarrutietako Misioak Elizen arteko lankidetzara gisa ulertzeko (Cfr. 50 años en camino liburuko 658.-659. or.) **Aurreratu ote dugu horretan guztian?** Misioetako gure zereginaren oinarrizko **puntu horiek gauzatu** ote dira, ala printzipioen adierazpen soila bilakatu dira?

Esku artean duzun memoriak "irakurketa inplikati-boa" behar du; hau da, axolagabeki eta azterketa hotza eginez irakurri beharrean, bertan kontatzen den historiako

partaide zarela sinetsita irakurri behar duzu. 2008ko gure memoria horrela irakurtzen baduzu, "misioetako abentura handiko" parte zarela sentituko duzu: parte aktibo eta sortzailea, kritikoa eta esker onekoa, eta aldi berean konprometitua eta sentibera.

Mota honetako dokumentuetan ezinezkoa da ehuneko ehun asmatzea. Bakoitzak "bere memoria" modu batean idatziko luke, norberaren gustuen eta ikuspegiaren arabera. Baina zuk memoria hori osatzen eta hobetzen lagun diezagukezu, irakurri ostean kritika eginez eta landuz.

Esku artean duzun 2008ko memoria hau misioetan egiten dugun lanaren ispilu da. Bihotzean sortua eta bihotzez landua. Memoria hau ez da apaletan betirako ahazteko dokumentua, ezta paper zaharren artean galtzekoa ere. Orrialde hauek bizitzaren berri dakarte, eta bizitzatik idatzita daude.

Ondo egindako gauzen esker onaren lekukoa da, baita erdizka edo gaizki egindakoen lekukoa ere. Gure misioak asko aldatu dira azken urteotan; gainera, misioetan pertsona asko eta ezberdinak aritu dira lanean. Lehenaren argitasunak geroaren egunsentirantz garamatza. Dena den, hasiera bateko lokarria ez da eten: misioetako jardunean 60 urtez euskal elizbarrutiak elkar lotzen jarraitzen baitu. Gainera, azken hamarkada oso garrantzitsua izan da historia luze horretan.

Zifrak, zenbakiak, estatistikak eta abar ezinbestekoak suertatzen dira ohiko memorietan, baina gure kasuan datu horiek ez dira garrantzitsuenak. Inportanteena, datu horien azpitik dagoena da: lan kuantitatiboaren gaitetik, lan kualitatiboa da kontuan hartu eta azpimarratu behar dena.

Denoi dagokigu misioen ardura, baita memoria hau hobetzea eta osatzea ere. Memoria lanabes bezala ulerzen dugu: misioetan egiten den lanaren "pultsua" neurtzeko esku artean erabil daitekeen lanabes egokia.

On egin, bada, irakurle! Eta esker anitz zure arretagatik.

## 1998TIK 2008RA BITARTEAN LAN EGITEN ARITU GAREN LEKUAK.

### EKUADOR

**Los Ríos probintziarako Babahoyoko elizbarrutia:** Babahoyo: Katedrala eta El Cafetal auzoa; Baba, Vines, Palenque, Quevedoko La Venus eliza, Quevedoko San Camilo eta Mocache.

**Machalako elizbarrutia:** Huaquillas, Arenillas, Santa Rosa, eta Paccha-n eta Zaruma-n lankidetza.

**Portoviejoko (Manabí) elizbarrutia:** San Isidroko, San Vicenteko eta Bahía de Caráquezeko elizak.

**Beste lankidetza batzuk:**

**Guayaquilgo artxidiozesia:** Unibertsitate Katolikoarekin eta Gaixo Sendaezinen Laguntzarako Elkartearekin.

**Quitoko artxidiozesia:** Misiolari Sekularren Institutuarekin (IMS) elkarlanean INCAREN egoitza kudeatzeko lanak.

**Riobambako elizbarrutiarekin:** Landa eta Hiri Prestakuntzarako Zentroetan eta Misiolari Ibiltaria (EMI) taldearekin elkarlana.

### ANGOLA RWANDA

**Luandako artxidiozesia:** Nuestra Señora de las Gracias (Precol auzoa) eta Sagrado Corazón de Jesús (Cazenga auzoa) elizak.

**Kabgayiko elizbarrutia:** Muginako, Giharako eta Kayenziko elizak

### BESTE ELIZA BATZUK

Elizbarrutietako Misiok bere historian zehar lan egin izan duen herrialdeetan esku-hartzen jarraitu du, modu batean edo bestean.

Angolako hegoaldean dagoen Lubangoko elizbarrutiarekin 2001. urtera arte elkarlanean jarraitu zuen.

Kongoko Errepublika Demokratikoan dagoen Lubambashiko artxidiozesiarekin ere elkarlanean jarraitu du, herri hauetan: Kansenia, Bunkeya, Mufunga, Panda Likasi eta Kilela Balandana.

## EKUADORKO TXOSTENA

Hamarkada horretan (1998-2008) Ekuadorren egin dugun misioetako lanean hauek dira ezaugarri adierazgarrienak:

- “Repliego” prozesua azkartu egin da.
- Babespenetik Euskal Herriko eta Ekuadorko kristau-elkarte eta elizen artean senidetzeak egitera igaro da. Bisitaldiak, elkarri esperientzien berri ematea, Ekuadorren egiten diren misioen antzeko egonaldiak egitea Euskal Herrian, Euskal Herrian oinarritzko komunitateak sustatzea, eta abar.
- Euskal Misiolari Taldeak “etxea irekita” izan du bere laneko lekua (lan-eremua, misioa...) eta Misiolari Taldea bera ere bisitatu nahi izan duten pertsonentzat, beren esperientziak ekartzeko, eta horrek misiolaritza “etxe irekia” izatea ekarri du. Aurrekariak egon arren, hamarkada honetan “etxe ireki” izateko borondatea berretsi da.
- Urrats zaila: fededun izatearen konpromisotik zerbitzu politikora. Zeregin horren bandera-ontzia Herriaren Mugimendua Herriarentzat (MPP) izan da. Alderdi politikoetan oinarritutako politikaren kontzientzia hartzeko zeregina (lehen ere landu izan da), fededunak konpromiso pertsonala nahiz taldekoa hartzeko eremu egokia baita. El Oroko (gehienbat), Los Ríoseko eta Manabiko komunitateetan ere misiolariak behin baino gehiagotan zapaldu behar izan dute politikaren eremu arriskutsua: Oinarritzko Eliz Elkarteetan (CEBak) hautagai-zerrendak sortu dira, giza eskubideen batzordeetan parte hartu da, bai eta emakumearen defentsan, nekazariak beren lurren alde egiten duten borrokan eta abarretan ere.
- Tokiko garapenerako planak: hamarkadako azken lorpen garrantzitsuenetakoa da. Orain arte lortutakoa “ahalduntzeko” beharretik eta pedagogia askatzaile batetik. (Aurrezki eta kreditu kooperatibak, baserriak, mikroenpresak, eskolak, bilketa-zentroak eta abar).
- Prestakuntzak duen garrantzia: kristau-prestakuntza (ikastaroak, elizbarrutietako hainbat batzordetan parte hartzea...) eta giza prestakuntza (mintegiak, lantegiak, eduki anitzeko ikastaroak...). Elkarrekintza pedagogikoan oinarritutako prestakuntza.
- Oinarritzko Eliz Elkarteak (CEBak) sendotzea: gure eliza guztietan CEBak handitu egin dira, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki.
- Gure elizetako zereginetan sekular ekuadortarrak sartzen hastea.

Gure ustez, aipatutako puntu horiek azken hamar urteotako zeregin aipagarrienak eta nabarmenenak laburbiltzen dituzte, balantze gisa.

## ANGOLAKO TXOSTENA

Angolan azken 10 urteotan aldaketa nabarmenak izan dira eremu guztietan:

- **Berrogei urte iraun duen gerra amaitu da:** 2002ko apirilaren 4an arazoaren behin betiko amaiera sinatu zen. 2008ko hauteskunde demokratikoetan, aldaketarako borondatea eta herri honen itxaropena berretsi dituzte.
- **Espiritu ekintzailea:** Luandako misiolarien laneko filosofia egokitutako auzoetan arreta erlijioso eta soziala handitzea izan da, bai presentzia handituta bai kalitatea handituta. Horregatik, 2001ean San Jose kapera Sagrado Corazón de Jesús eliza bilakatu zen. Bost urte geroago, Cazenga auzo txiroan Santa Marta gunea soziala zabaldu zen.
- **Misioa bete da:** Precoleko Nuestra Señora de las Gracias elizan 28 urtean lanean aritu ostean, gure misioa bete dugu. Eliza komunitate heldu baten eskuetan utziko dugu: ekonomia onbideratuta dago, eta apaiz angolarrek erritmo berria jarriko dute.

## RUANDAKO TXOSTENA

2001eko irailean misio hau itxi egin zen. Gerra amaitu zenean, zenbait misiolari bertan gelditu ziren, herrialdearen egoera zaila zela-eta biztanleei laguntzeko. Gatazka hartan, 2000ko uztailan, Isidro Uzkudun bortizki hil zuten, eta 2004ko maiatzean, Jose Ramon Amunarriz.



**M**isioetako lankidetzak, komunitate bereko elizen arteko proiektua den neurrian, ezaugarri hauek izan behar ditu:

Testuinguruan sartuta egon behar du: lekuaren arabera ezberdina izango da. Inkulturatua, elkarriketarako irekia. Txiroei laguntzeko joera izango du, eta haien askapenaren aldeko lana egingo du. Elkarrekikoa: elkarri errespetuz eman eta jaso. Apostoluen Egintzen komunitate-ereduari fidela izan behar du, koordinaziorako beharrezkoak diren eremuak sortu behar ditu, eta aberastasuna nahiz txirotasuna partekatu behar ditu: pertsonak, ondasunak, esperientziak...

Pertsonak eta komunitateek parte-hartze erreal, afektibo eta eraginkorraren bidez beste mundu bat sortzen lagunduko dutela amesten dugu. Eta pertsonen, herrien eta elizen garapena sustatzen duen eredu bat bultzako dutela. Eredu horrek giza eskubideak, pertsonen eta ama-lurraren duintasuna errespetatuko ditu.

### MISIOLARIAK

10 urte hauetan 96 pertsona –laikoak, lekaiameak eta apaiak– izan dira misioetan: El Oro-n 28 izan dira, Los Riosen 34, Manabín 12, Angolan 9, Ruandan 5, eta 8 pertsona beste hainbat lekutan izan dira (Guayaquil, Quito eta Riobamba).

Zereginak:

**Pastoraltzako ekintzaile** gisa, Oinarrizko Eliz Elkartei laguntzea.

Eta **lankidetzaren** alorrean, tokiko garapena sustatzeko proiektuetan parte hartzea. Lurraldeei buruzko txostenean agertzen da.

### PERTSONA BOLUNTARIOAK ETA LAGUNTZA PROFESIONALA

5 pertsona izan dira: bi Ekuadorren –podologo bat eta ekonomista bat–, eta hiru Angolan, hirurak dentistak. Hemengo taldeek materialez betetako edukiontziak bidaltzen dituzte aldiro. Edukiontziak bidaltzen dituzten taldeak, besteak beste, hauek dira: Bizkaiko Correo Misionero taldea, Gipuzkoako Chapuceros sin fronteras elkarte eta Arabako kontainer taldea.



### UDAKO ESPERIENTZIAK

Iparra-Hegoa ikastaroa egiten dutenek eta senidetzeak dituzten taldeetako pertsonak hartzen dute parte. Talde txiki bat proba gisa joan da, gero egonaldi luzeagoak egiteko.

Misioek antolatutako udako esperientzietako parte hartzea hau izan da: Bizkaian **146** pertsona, Araban **43** eta Gipuzkoan **37** (Gipuzkoako beste 70 pertsona beste herrialde batzuetan izan dira, elizbarrutiko elkartasun plataformekin).

Hauek dira:

Ekuador: El Oron 198, Los Riosen 45, Manabín 6, eta Riobamban 65.

Angolan: 13

Izan dituzten zereginak:

- Misioetan parte hartzea
- Eskola-laguntza ematea barrutietan
- Pastoraltza-jarduera babestea
- Adingabeen zentroetan laguntzea
- Kultura arteko jardueretan parte hartzea

**Hain ezberdinak diren errealitate horiek ezagutzea eta beraietatik ikastea da esperientzia horien helburu nagusia.**

**Balorazioa:**

Udako esperientzietan parte hartu duten 226 pertsonetik:

11 pertsona Angolan nahiz Ekuadorren izan dira misioetan; 34 beren elizetako misio-taldeetan daude edo Iparra-Hegoa ikastaroa egiten laguntzen dute; 89 pertsonak hainbat konpromisotan hartzen dute parte, hala nola senidetzeetan, bidezko merkataritzako Kidenda-n, Fiare banku etikoan, GGKE-etan, eta zenbait pertsonak beren heziketa-lanean misio-ikuspegia txertatzen dute: Euskalerriko Eskautak, Gazte Pastoraltza...

**Momentu honetan gogoeta-fasean 11 pertsona daude.**



## HEGOALDEKO AHOTSAK

Elizbarrutietako Misioen berrogeita hamargarren urteurrenean jarri zen martxan hegoaldeko ahotsak ekimena, eta urte hauetan zehar, hegoaldeko ahots gisa Angola eta Ekuadorko biztanleak etorri dira.

Ekuadorko probintzia hauetatik etorri dira: El Orotik 11 pertsona; Los Ríosetik 16, eta Manabitik 6 pertsona.

Angolatik 17 pertsona etorri dira, eta horien artean 5 senar-emazteak ziren.

### Zereginak:

- Senidetzeekiko erlazioak
- Iparra-Hegoa ikastaroko taldeekin topaketak egitea
- Ikastetxeetan presentzia izatea
- Misioetako topaketak egitea parroquia-taldeekin eta beste zenbait talderekin
- Proiektuak eta kanpainak babestea
- Hitzaldiak ematea eta kalean ekitaldiak egitea
- Hedabideekin eta erakundeekin harremana izatea

Egunerokotasunaren, gure esperientzien eta erronken berri eman diogu elkarri. Gainera, ekimen honek Ekuadorko eta Angolako ahotsek elkarrekin topo egiteko aukera eman du.

Senidetuta dauden elizetan, berriz, anaien eta ahizpen harremana sendotu egin da.

Sentsibilizazio-ekimenetan lagundu dute, elizetan eta hedabideetan. Ekimen horien helburua da hedabideek hegoaldeaz ematen dituzten ikuspegia baino ikuspegi osoagoa ematea. Eliza bizirik dagoela erakusten digute, txiroen eliza.

2004 eta 2007 urteetan Espainiako enbaxadak ekuadortarrei bisa ukatu zien. Hain zuzen, etorkinentzat diskriminatzaileak diren legeen bidez, ez zieten etortzen utzi. Hori zela eta, ekimen ugari antolatuta zituzten, protesta egiteko.

## SENIDETZEAK

Bizkaian bost senidetze daude, eta Gipuzkoan bi. Horietako batzuk senidetzeko prozesuan daude oraindik. Araban bost daude, duela urte askotik.

### Indarguneak

Errealitate berrietara irekitzeko dugun gaitasunak aukera ematen digu elkartasunari aurpegi bat jartzeko. Baliabide ekonomikoak bialdaltzea, berez, ekintza hutsa izan daiteke, baina gu harago goaz: jakintzak eta balioak trukatzan ditugu, betiere berdintasunaren ikuspegia hartuta, eman eta jasotzearen ikuspegia, elkarri entzunez eta babestuz.

Mundu bidezkoagoa eta anaitasunezkoagoa eratzeko borrokatzen gara.

### Ahulguneak

Gure bizitzan aldaketa bat egin beharra dakar.

Komunikazioa eta konpromisoa egonkor mantentzea.

## LANKIDETZAK ETA PROIEKTUAK:

Zenbait elizak laguntza ekonomikoa ematen diete proiektuei, eta haiekiko harremana horretara mugatzen da. Baina horietako zenbait, proiektuei laguntza ekonomikoa eman ostean, senidetu egiten dira.

Bestalde, badira une jakinetan laguntzen duten taldeak ere; hori da, adibidez, Taldeka Lagunduzek Palenquerekin egiten duena.



## BALORAZIO OROKORRA

**Misiolarien** kopuruari soilik erreparatzen badiogu, ikusiko genuke gure elizbarrutiaren misio-konpromisoa nabarmen jaitsi dela. Baina prestakuntzan eta udako esperientzietan parte hartzen dutenen kopurua urtetik urtera etengabe hazten ari da. Pertsona horien %50, hona iristean, prest agertzen da misioetako konpromisoarekin lotuta dagoen jardueraren batean laguntzeko; adibidez: senidetzeak, misio-taldeei laguntzea, prestakuntza, bidezko merkataritza, Fiare banku etikoa eta abar.

**Hegoaldeko ahotsen** presentziak herrialde txiroez genuen ikuspegia aldatzen lagundu digu. Errealitate horren ikuspegi positiboagoa eman dute, eta geurea ere zalantzan jarri da. Gainera, hegoa-hegoa (Angola eta Ekuador) topaketarako aukera ere eman du.

Udako egonaldietan, misiolariak ahalbidetzen dute Iparra-Hega eta Hegoa-Iparra ikastaroak egitea.

**Senidetuta** dauden komunitateak, senidetze horien bitartez, sendotu egiten dira. Gainera, misioetako konpromisoa ere sendotu egiten da, besteak beste, jarduera hauen bitartez: txiroen errealitatera eta beren federa gerturatzea, Jainkoaren Hitza irakurtzeko duten modua ezagutzea, eta pertsonen arteko harremana. Aipatutakoak dira elkartasunari aurpegia jartzeko moduak.

## AZKEN 10 URTEOTAKO PROIEKTUEN BALORAZIOA:

Elizen, norbanakoen eta erakundeen bitartez Elizbarrutietako Misioek lagundu dituzten proiektuek haurrak eta gazteak izan dituzte hartzaile nagusi: zenbait etxe, hezkuntza, osasuna, giza eskubideen defentsa, eraikuntzak, eta herrialdeko pastoral-tza-ekintzaileei laguntza ekonomikoa ematea.

Proiektu horietako batzuek bilakaera izan dute:

- Prebentzioarekin, hezkuntzarekin eta generoarekin lotuago dauden proiektuetara.
- Tokiko garapenerako proiektuetan: jardueraren globaltasuna ahalbidetu behar dute, genero eta "ahalduntze" edo enpoderamendu kontzeptua bereganatuz.
- Teknologia berriei esker, lortu da jende gehiagok salatzea lurretatik botatzea eta bestelakoak, eta azkartasun eta eraginkortasun handiagoa ere lortu da.
- Ruandan izandako gerrak hango proiektu guztiak markatu ditu: umezurtzen eta alargunen arreta, etxeak eraikitzea, haziak banatzea... adiskidetzeko prozesuak.



ELIZEN ARTEKO LANKIDETZA

J ainkoaren erreinua amesten dugu. Prestakuntzako, sentsibilizazioko eta esku hartzeko jarduerak martxan jartzea amesten dugu, gure kontzientzia hazteko, eta bai pertsonengan bai herrietan bai elizetan halako garapen bat lortzeko, giza eskubideekiko eta ama-lurraiekiko errespetuzkoa, eta demokrazia eta duintasuna sustatzen dituen.



Bizkaian 15 talde,  
Araba 15 talde, eta  
Gipuzkoan 23 talde.

### ELIZBARRUTIEN ARTEKO MISIOETAKO ANIMAZIO TALDEA:

2001ean sortu zen, Sartu abentura handi honetan izeneko erakusketa martxan jarri ostean. Bi etapa izan ditu: 1) Sentsibilizatorako materialak sortzeko etapa (argitalpenen atala ikusi). 2) Mundua zeuk margotu izeneko proiektua gauzatu zen. Etapa honetan prestatuntzarako, sentsibilizatorako, senidetzeetarako eta proiektuetarako irizpide komunak ezartzen hasi ziren.

### TALDEEN INDARGUNEAK

Aukera ezin hobea dira gure elizbarrutiak elkartasuna mugarik gabe bizitzeko.

Sarean egindako lana, besteekin koordinatuz, indarrak bateratuz, ezagutzak partekatuz...

Justiziarekiko eta elkartasunarekiko konpromisorako eremua dira.

Senidetzeen bidez indartu dira.

Pastoral Barrutiak martxan jarri eta zenbait talde elkartu egin dira. Horrek indartu egin ditu.

### AHULGUNEAK

Elizbarrutiaren pastoraltza-ekintzan pisu txikia izatea.

Belaunaldiarteko ordezkapenik eza.

Prestakuntza gabezia.

Pertsona gazte gehiago sartzeko beharra.

### TOPAKETAK

Haurrekin egindako **elizbarrutien arteko 5. topaketak**

**Xabier** (2006): OMP iparraldeko eremua (Nafarroa anfitrioi gisa, Araba, Logroño, Aragoi, Gipuzkoa eta Bizkaia). 3.000 pertsona baino gehiagok sentsibilizazio tailerrak eta jarduerak egin genituen.

**Azpeitia** (2008): Elizbarrutien arteko topaketa izan zen Ekin lanari. Haur misiolarien topaketa hartan ibilaldia eta kontinenteen inguruko tailerrak egin zituzten.

Elizbarruti anfitrioiak, taldeen arteko elkarlana indartu zuten eta antolatu zituzten tailerren bitartez haurren, gurasoen eta hezitzaileen arteko sentsibilizazio eta topaketa esperientzia bultzatu zuten.

### PRESTAKUNTZA

#### INDARGUNEAK:

I Misioetako harrobiari mesede egiten dio eremu horrek.

I Misioetan inplikaturako egotea.

#### AHULGUNEAK:

I Aurrera egiteko laguntza eskasa

Parte-hartzaileen kopurua:

#### Bizkaia (197)

I Iparra-Hegoa ikastaroa egin duten pertsonen kopurua hazi egin da (Bilbon, Caritasek eta elizbarrutiaren teologia eta pastoralgintza institutuak antolatzen dute).

Deszentralizazioa hasi zuten: Gernika, Durango eta Berriren taldeak osatu ziren

I Prestakuntza-eremuak zabaldu egin dira: Bilboko irakasturako eskola eta Euskalerriko Eskautak.


#### Araba (36)

Iparra-Hegoa ikastaroa 2003an hasi zen, Gasteizen. Iaz Nerbioi Ibarrean eta Lautadan hasitako taldeak kontuan hartuta, guztira 36 pertsonak egin dute ikastaroa.

#### Gipuzkoa (52)

Elizbarrutiko elkartasun-plataformarekin egiten da prestatuntza-ikastaroa. Elizbarrutiko misioen udako esperientzietan parte hartu duten pertsonak, ikastaro hori egin ostean, prestatuntza berezia izan zuten.

Bizkaiko adibidearekin  
grafikoa egin,  
1998tik 2008ra.



## SENTEBILIZAZIO PROIEKTUAK

Azken 10 urte hauetan zehar misio animazioa ulertzeko sentebilizazioa modu parte-hartzaileago baten bitartez egitearen aldeko apustua egin da, horrekin lotuta Caritasek eta Kidendak Sartu abentura handi honetan eta Mundua zeuk margotu proiektuak martxan jarri zituzten. Sentebilizazioa modu parte-hartzaileagoan gauzatu ahal izateko jarduera hauek abian jarri dituzte: kaleko ekitaldiak, Hegoaldeko Ahotsak, ipuin kontalariak, musika emanaldiak, eta modu parte-hartzailean herrialde txiroen errealtatea eza-gutzeko aukera ematen duten eta konpromisoa bultzatzen duten materialak argitaratzea.

## Y... TÚ ¿QUÉ PINTAS? MUNDUA ZEUK MARGOTU!

Bilboko Caritasekin eta Kidendarekin elkarlanean antolatutako elizbarrutien arteko sentebilizazio proiektua. Honakoan datza:

- Hausnarketarako eta Ipar-Hegoa desberdintasunen arteko iritzien trukaketarako eremuak sortzea.
- Bidegabekeriaren gizarte horretan gure betebeharra eztabaidatzea.
- Egunerokotasuna eraldatuko duten jarduerak martxan jartzea: bidezko merkataritza, senidetzeak, kulturen arteko trukaketak eta bestelako ekimenak.

2004-2005 ikasturtean zehar 151 tailer (bataz beste hiru saiokoak) egin ziren hiru elizbarrutietan. Elizbarruti bakoitzean hiru hilabete egin zituzten eta guztira 6.393 pertsonak hartu zuten parte. 220 begirale baino gehiago aritu ziren lanean eta 1.800 gaztek ikastaro txiki bat egin zuten Bilboko Gabonetako haur parkean, proiektuak bertan presentzia izan zezan.


**Balorazioa:** ahalegin ikaragarria egin zen proiektuaren hartzaileengana zuzenean iristeko. Ikastaroan Ekuadortik etorritako pertsona baten presentzia izateak, hegoaldeaz, bere kulturaz, bere balioez dugun ikuspegia zabaltzen, eta iparraldearen eta hegoaldearen arteko loturak egiten lagundu zuen.

## KANPAINAK

Kanpainek gure elizbarrutiaren misio konpromisoa gogorarazten digute eta azken urteotako kanpainen leloekin jendea misio konpromisoa erakartzen ahalegindu dira, Jainkoaren Erreinua eraikitzen. Hauek dira azken urteotako leloetako batzuk: Pobreen ondoan, pobreziaren aurka; Beste mundu bat ageri da. Nahi al duzu parte hartu?; Behart-suekin... Itxaropena suspertu; Jarraitzeko prest...

## GABONETAKO HAUR PARKEA

Azken 10 urteotan haur parkean parte hartu da. Gabonetako haur parkea ondo pasatzeko eta kontsumorako eremua den aldetik, ekimen honen helburua beste balio batzuk dituzten kulturak eta pobrezian bizi diren beste herrialde batzuk badirela erakustea da. Herrialde horien berri emateko modu jolasgarri eta parte-hartzaileak erabiltzen dira. Gainera, herrialde horien errealtateak gure bizitzeko moduarekin lotura zuzena duela ere erakusten ahalegintzen da. Hainbat urtez, parrokiak-taldeak izan dira zeregin hau bete dutenak. Gure parte hartzearen adibide gisa 2004-2005ean gauzatutako Mundua zeuk margotu! proiektua du.



## SARTU ABENTURA HANDI HONETAN:

Erakusketa esperientzia pozgarria izan da.

- Haurtzat eta gazteentzat egokitutako narrazioen bitartez hiru herrialdek (Angola, Ekuador eta Ruanda) bizi duten egoera konplexuaren berri eman zen.
- Parrokia-taldeen zeregina bultzatu zen: parte hartzeko modu malguak erabiliz, elkartzan ekimenak barneratuz, betiko zorren aurkako kanpainak, bidezko merkataritza...
- Elizen, taldeen eta pertsonen arteko harreman garrantzitsuak ahalbidetu zituen.

Parte-hartzea ikasturte batekoa izan da probintzia bakoitzean. 9.313 pertsonak parte hartu dute; 3.902 nekazaritzako inguruetakoak eta 5.411 hirietakoak. 43 ikastetxeetan izan da erakusketa, 16 erlijiosoak eta 27 publikoak (Arabako datuak).

## LOS RÍOS ALDIZKARIA

Elizbarrutietako Misionek kaleratzen duten argitalpen arrakastatsuenak **Los Ríos aldizkaria** da. Aldizkaria 1949tik etenik gabe argitaratzen da, eta urtean lau zenbaki argitaratzen dira.

Azken urte hauetan erredakzio taldea handitu eta berritu egin da eta aldizkaria ere berritu egin da. Herrialde eta errealtate gehiagotara zabaldu da. Gure helburua hobetzen jarraitzea da.

## ARGITALPENAK

**Elizbarrutietako Misionen 50. urteurrenaren** harira argitaratutako lanak: Manuel de Uncitiren "Los comienzos de la gran aventura"; Joseba Legarzak idatzitako "50 años en camino – 50 urtez bidean aurrera, 1948-1998"; Elizbarrutietako Misionen hasierari buruz Luis Alberdik egin zuen **ikerketa** lan sakona, eta Josetxu Canibek idatzitako "Máximo Guisasaola, misionero en dos continentes".

**Misioetako animazioaren** inguruko argitalpenak: 2001ean, **Elkartasunerako liburuxkak** argitaratu ziren, eta bertan landu zituzten gaiak hauek izan ziren: Ekuador, Angola, Ruanda, La Yuca eta emakumeak, eta Elizbarrutietako Misioak Ekuador-ko kostaldean abian dituen proiektuak; misioetako konpromisoari buruzko **karpetak**; **Muxima** izeneko ipuin liburua eta Elizbarrutietako Misioei buruzko **panel informatzaile** sail bat.

2008an Euskal Elizbarrutietako Misioei buruzko DVD bat argitaratu zen.

Zenbait misiolarik beren esperientziak ere argitaratu dituzte, horien artean Iñaki Camararen Rotos pero enteros lana nabarmendu nahi dugu.

**Angolako** errealtate kulturala ezagutzeko liburu egoki bat Raul Ruiz de Azuaren **Cultura Tradicional Banta** da.

**Ekuadorren dagoen misiolari taldeak** urtero **hiru liburuxka ofizial** argitaratzen ditu. Liburuxka horietan bileretan landu beharreko gaiak, montubia kultura eta Ekuador-ko errealtatearen hainbat ikuspegi biltzen dituzte.

## WEB-ORRIA

2001ean sortu genuen, eta duela gutxi errebisio sakon bat egin diogu. 2009an garrantzi gehiago eman nahi diogu sensibilizatorako hain erabilgarria den tresna honi.





## KIDENDAK 10 URTE BETE DITU

Pertsona boluntarioek Bizkaiko elizetan jartzen zituzten salmenta postu txikietatik sortu zen. Postu horien bitartez bidezko merkataritza komunitateetara eta herritara gerturatzea lortu zuten.

Azken urte hauetan konpromiso honen inguruan 130 pertsona boluntario baino gehiago aritu dira lanean. Horietatik 80 pertsona lau lantaldetan aritzen dira: kudeaketa-merkaturatzea, denda-biltegia, sentsibilizazioa eta lurralde taldeak.

2002. urtearen amaiera aldera lehenengo denda zabaldu zuten Bilboko Epaltzaren Alargunaren kaleko 6. zenbakian. Denda hau nazioarteko merkataritzarentzako aukera bideragarria izan zen eta salmenta puntua izateaz gain, elkartzeko lekua, informazioa emateko eta prestakuntzarako ere izango zen.

2003an Kidendak bidezko merkataritzaren Espainiar estatuko koordinadoran sartzeko eskaera egin zuen.

2005ean Bilboko Udaleko kooperazio kontseiluko partaide bilakatu zen.

2006an Alboanek Bizkaiko Misisio taldeak eta Caritasek bidezko merkataritzaren inguruan duten proiektuan sartzeari eskatu zuten.

2007an salmenta puntu berri bat zabaldu zuten Bilboko Arrupe Etxea eraikinean (Aita Lojendio kaleko 2. zenbakia).

Kidendaren 10 urte hauetan garbi ikusi da hegoaldearen eta iparraldearen arteko harremanak goitik beherakoak izan beharrean berdinetik berdinerak izatea posible dela.

**Bidezko merkataritza justizia ariketa bat da eta eremu egokia da gazteen eta helduen konpromisorako. Konpromiso horrek lotu egiten du eta gainera, biderkatzea ere posible da. Balorazioa oso positiboa da.**

## ERAKUNDEEKIN ETA MUGIMENDU SOZIALEKIN ELKARTUZ

Elizbarrutietako misioak beste erakunde eta mugimendu sozialekin lotuta dago. Horri esker sare zabalak sortu dituzte, eta euren ikuspegia emanez injustiziei eta pobrezia irtenbideak bilatzen saiatzen dira..

### GGKEen koordinatzailea eta beste kanpaina batzuk

10 urte hauetan zehar GGKEen koordinadoran parte hartu dugu, gainera, erakunde sortzaileetako bat izan gara, eta alor ezberdinetan aritu gara lanean: generoa, hezkuntza, kanpainak, proiektuak...

Bestalde, kanpaina hauetan lagundu dugu: Kanpo zorra, betiko zorra, kanpaina honetan sortu zen banku etikoaren germenak; %0,7 kanpaina; Irakeko gerraren aurkako mobilizazioak; eskubide sozialen gutuna; atzeritarren legea; legegintzako herri-ekimena; Pobrezia Zero kanpaina; milurtekoa garatzeko helburuak...

### Etorkinak

Azken 10 urte hauetan **immigrazioaren benetako errealitatea** gure herrira iritsi da. Hiru lurraldeetan etorkinen pastoral sailei, etorkinen elkarteei eta etorkinen babeseko elkarteei laguntza eta babesa eman diegu. Babestu ditugun elkarteak hauek dira: Gipuzkoako Esperanza Latina elkarteak, Arabako Aya Yala elkarteak eta Bizkaiko Harresiak Apurtuz etorkin elkarten eta etorkinen babeserako koordinadora.

### Bidezko merkataritza

Bizkaiko elizbarrutiaren proiektua da Kidenda, eta horren bitartez bidezko merkataritza dinamizatu dugu. Arabako bidezko merkataritza koordinadoraren bitartez gauzatu diren ekimenak ere dinamizatu ditugu eta Gipuzkoako Kitzin eta Harreman Herriak Elkarlanean bidezko merkataritza taldeak babestu ditugu.

Kaleko ekimenetan, jardunaldietan, kanpainetan... aktiboki parte hartu dugu.

### Banku etikoa: FIARE

Bitartekotza finantzario alternatiboa eskainiko duen proiektu hau, ehundik gora euskal entitatek bultzatu dute. Euskal Elizbarrutietako Misisioak entitate horien artean dago. Proiektu honen hartzaile nagusiak, bai gure gizarte aberatsean bai hegoalde txiroan, baztertuta dauden pertsonak dira.

Gordailugile gehienek, beren dirua garapena sustatuko duten proiektuetara, bidezko merkataritzara eta gizarte-egoera ahuleko taldeak gizarteratzeko proiektuetara bideratzea nahi izaten dute.



2008KO PROIEKTUAK	KOPURUA	EMAILEAK
<b>EKUADOR</b>		
<b>BABA</b>		
Ahizpa marianiten etxe misiolaria	2.247,33	Partikularrak
Babako "piladora", kooperatiba eta lur saila	43.010,00	Arabako Errioxa, Laskorain Ikastola, Ibarako misio taldea eta Kuartango.
Osasun zentroko ekipamenduaren inplementazioa	8.491,12	Santu guztien parrokia -VI eta partikularrak.
Vinces, Paelenque eta Babako CAC – gerentearen soldata	4.494,67	Arabako Errioxa -Vi
Ur-ponparen proiektua	1.150,00	Kuartango- Vi
Montubioen kultura eta dantza taldea	2.000,00	Goi-Erribera eta Pobes.
Babako hainbat proiektu	10.338,70	Partikularrak eta Kuartango- Vi
Dohaintzak	4.500,00	Partikularrak
Biltegia	370,00	Partikularrak
<b>VINCES</b>		
Geroko belaunaldiaren hezkuntza eta beka	6.571,72	MMDDVV eta Gasteizko Hegoaldea.
Katekekesiko gelen azpiegitura eta Xabierko San Frantzisko kaperarena	2.690,06	MMDDVV
Injineru agronomoaren soldata	3.060,22	MMDDVV
Gizarte errehabilitazio zentrorako laguntza	1.743,93	MMDDVV
Mariaren Aurkezpeneko erlijiosentzako dohaintza	1.976,00	San Millaneko udaletxea
<b>PALENQUE</b>		
Eraikuntzak: "La Delicia" -ko kaperak eta "La Yuca" -ko etxea	2.526,00	MMDDVV eta partikularrak
Lurren erosketa	16.072,00	Lautada aldea-Vi
Uholdeak	4.010,00	Partikularrak
Fatima eskola	94.993,10	Begoñazpi ikastola, Magisteritza Eskola BI, Durangoko udaletxea-BI, Begoñako parrokia-BI, Deustuko San Pedro- BI, eta Lagunkide - Arrigorriaga BI
Hautzaroko proiektuak eta dohaintzak	32.508,91	MMDDVV eta partikularrak
"Maculillo" proiektua	20.000,00	Partikularrak.
Kooperatibarako lehorgailuaren erosketa	24.000,00	Zarauzko udaletxea

2008KO PROIEKTUAK	KOPURUA	EMAILEAK
<b>MATA DE CACAO</b>		
Azpiegitura, hezkuntza eta generoko proiektuak	19.251,15	MMDDVV, Zigoitia, Santa Teresa parrokia, Laudio, Amurrio VI. eta Partikularrak
<b>EL CAFETAL</b>		
Hautzaroko proiektuak (ezinduak, arriskuan daudenak, umezurtzak, ...)	121.355,10	MMDDVV, Kutxa, Larratxo Fundazioa, Zaramagako parrokiak-VI, Artzain Ona-GI, Donostiako udaletxea eta partikularrak.
Etxebizitza	2.118,91	MMDDVV
"La Fortuna" ur-araztegia	58.344,00	CAN Fundazioa (Caja Navarra)
Bekak	6.000,00	Ondarroako parrokia
"El Buen Pastor" jantokia	8.950,00	Artzain Ona - GI eta Bizian Gora - BI
Osasun zentroa eta osasun suspertzaileak	2.270,00	MMDDVV
Caritas	3.225,00	Partikularrak
Alkoholikoen errehabilitazioa	2.350,00	MMDDVV
<b>LA VENUS</b>		
Hezkuntzako proiektuak, irakaslegoa, materialak eta gaikuntzarako tailerrak	2.221,64	MMDDVV
"Nuestra Sra. de la Natividad" kaperako azpiegiturak	1.926,28	MMDDVV
Hautzaroko proiektuak	23.335,00	Familia Santua, Buradon Gatzaga eta Agurain VI.
Dohaintzak	21.000,00	Izengabekoak
<b>QUEVEDOKO SAN JOSE</b>		
Kaperaren birmoldaketa eta "Nuestra Sra. de Monserate"-ko gelak	3.531,52	MMDDVV
Quevedoko liburutegia	800,00	Izengabekoak
Quevedoko Fatima eskola	4.000,00	Partikularrak
<b>BABAHOYOKO ELIZBARRUTIA</b>		
Hezkuntza eta osasuneko lehen arreta	10.335,00	San Nikolas parrokia (Algorta) eta Nerbioi aldea-VI
Osasun zentro eta botikinetarako botika generikoen banaketa	10.217,95	Nerbioi aldea-VI
Kartzela	1.926,28	MMDDVV
Sozial Pastoralta: Uholdeak (El Oro-ko Sozial Pastoralta barne)	82.858,08	Izengabekoak, Arabako Errioxa, "El Prado" Taldea, Gasteizko udaletxearen Larrialdietarako Fondoa, Gasteizko Hegoaldea, Apostolikak, San Joseren Alabak, Koroatzea parrokia, Gizaberri (VI) eta Partikularrak (BI)

2008KO PROIEKTUAK	KOPURUA	EMAILEAK
Giza eskubideetarako bulegoa RICAURTE	12.610,28	Ermuako Udaletxea eta Partikularrak
Ezinduen zentroa EL OROKO EREMUA SANTA ROSA	8.300,00	Mendiola, Otazu, Monasterioguren, Herentzia, Partikularrak eta MMDDVV
Elkarteko landetxerako traktore txikia, Santa Rosa.	3.852,57	MMDDVV
Haurren ikasketetarako beka	10.293,00	Hegoaldeko parrokiak- VI
Santa Rosako etxebizitzaren sarbidea eta hobekuntza	7.958,77	MMDDVV
Aurrezki kutxako proiektua HUAQUILLAS	6.690,39	San Bizente parrokia BI
Medikuntza Naturaleko proiektua	1.430,00	Gasteizko Koroatzea parrokia
Huaquillaseko elkarten historiaren biltzea	7.384,10	MMDDVV
A.M.I. Senidetzea	6.583,65	Sansomendiko parrokia. Los Dolores. Gasteiz
Eskulanak	695,00	Partikularrak
Dohaintzak	1.976,92	Partikularrak
ARENILLAS		
Hezkuntza-proiektua. Ikastetxeetarako laguntza	3.000,00	Gasteizko Hegoaldeko parrokia
Dohaintzak	8.955,00	Karrantzako parrokiak
RIOBAMBA		
"Un Cántaro de Miradas" . Hezkuntzako proiektua	2.711,10	MMDDVV
ANGOLA		
Unibertsitateko ikasketetarako beka	8.741,10	MMDDVV
Precoleko helduen alfabetatzea	8.741,10	MMDDVV
Haurren eskolaratzeko proiektuak	2.597,61	San Bizente parrokia- BI eta Partikularrak
Dohaintzak	43.836,31	Partikularrak
Santa Marta Zentroa	7.500,00	Partikularrak
Familien aldeko arretarako proiektua eta elkarten susperketa (Caritas)	28.878,18	MMDDVV eta Partikularrak
Santa Marta Zentrorako ibilgailua	23.700,00	MMDDVV
Santa Marta eskolako ikasketetarako beka	38.190,31	MMDDVV, Familia S. parrokia-VI, Arabako Lautadako Artziprestaldea, Klarisak VI, Partikularrak, Udako Iturriak y Caixako Gizarte Ekintza

2008KO PROIEKTUAK	KOPURUA	EMAILEAK
<b>RUANDA</b>		
Dohaintzak	1.310,00	Partikularrak
Kayenziko azpiegiturak (uraska eta eraikuntzak)	6.723,00	MMDDVV
Giharako eskolaren eraikuntza	8.000,00	Lazkaoko udaletxea
Mugina, Gihara eta Kayenziko nutrizio etxeak	18.695,30	MMDDVV
Proyecto de agua en Muginako ur proiektua	30.000,00	Zarauzko udaletxea
<b>CONGO</b>		
Kanseniako hezkuntza-proiektuak	63.959,00	Getxoko udaletxea , San Fernando parrokia- BI eta Partikularrak.
Bunkeyako ospitalea	13.600,00	San Bizente parrokia- BI eta partikularrak
Berrizko Mesedeetako Misiolarientzako dohaintza	10.100,00	Partikularrak
Mufungako hezkuntza-proiektuak	73.950,50	Romo-Getxoko parrokiak- BI eta partikularrak.
Mufungako katekistentzako laguntza	1.200,00	Partikularrak.
Aitzurrak	35.630,16	Elgoibarko parrokia eta partikularrak.
	5.191,10	Partikularrak.

Vi: Alava | Bi: Bizkaia | Gi: Gipuzkoa



## ETORKIZUNeko APUSTUAK

- 11 Jainkoaren espirituarengan konfiantza handia genuen eta hala ekin genion bideari. Komunitateak sortzen ahalegindu behar dugu, eta beren ibilbideaz arduratzeaz gain, elkarren artean koordinatu behar gara. Komunitate horiek bizirik mantendu daitezten, partekatu dezaten eta misiolariak izan daitezten, beharrezkoak eta nahikoak izango diren koordinazio eremuak sortu behar ditugu. Bide horri eutsiz, hemen Oinarrizko Eliz Elkarte gehiago sortzearen aldeko apustua egiten dugu.
- 21 Garena eta duguna elkartrukatzea: pertsonak, ondasunak, esperientziak, itxaropena, lorpenak, ideiak, beharrak... Zentzu horretan Hegoaldeko Ahotsak eta senidetzeak ditugu.
- 31 El Oroko eta Los Rioseko Oinarrizko Eliz Elkarten apropiazio prozesua babestea.
- 41 Euskal Elizbarrutietako Misioen ardurapean geratzen diren Ekuadorko eta Angolako elizak babesten jarraituko dugu. Babes hori pertsonen, apaizen, sekularren eta lekaimeen (bitartez helaraziko diegu), laguntza ekonomikoa, etikoa, gogo-laguntza, espirituala, pertsonala, komunitarioa eta abar ere emango diegu.
- 51 Gure eskura duguna babestearen aldeko apustua ere egiten dugu. Izan ere, ahalegin handia suposatu digu horiek zutik mantentzea: Oinarrizko eliz elkatea: proiektuak, prestakuntza eta Misioetako Animazioa Urkiola, Los Rios aldi-zkaria eta misioetako ordezkartzen zeregina besteak beste.



Pablo Sanaguano

Edificio Barria  
Plaza Nueva, 4 Entrpl.  
**48005 BILBAO**  
Tel. 94 401 36 99  
misiobi@arrakis.es

Vicente Goikoetxea, 5 - 3º  
**01008 VITORIA-GASTEIZ**  
Tel. 945 13 08 57  
misiovit@arrakis.es

Legazpi, 2 -3º Izda.  
**20004 SAN SEBASTIÁN**  
Tel. 943 42 77 54  
misiodon@arrakis.es